

Hegoaldera ateraldia

Astelēhen goizean, Baigorriko Donostei ikastetxetik abiatu ginen Donostiako Eureka museoari buruz. Planetarioan izarrak ikusi ginituen, nola sortzen eta hiltzen diren etabar. Animaleekin segitu ginuen bisita bai eta ere elektrika eta pisuari lotuak diren aktibitateekin. Ondoan zen parke batean piknikatu ondoan, eta ontsa jostatuz hango zuhaitzetan, aterpetxera joan ginen. Zakuak garbaretan utzi eta, hondartzan jostatu ginen eta hor, erakasleek jakinik Erreal taldeko zangobaloin jokolariak Donostiako herriko plazara besta egitera heldu zirela haren koparekin, besta horretan parte hartu ginen. Biharamunean, emozioak hein batetara jautsirik, San Telmo

museoak lagundu gintuen gure Euskal Herriko historiaren jakintza sakontzen: hilerriak, harriak, lehengo usaiak kandlekin, bai eta ere bale ihizia eta Aitzoko Joakin erraldoiaren kadera, zapetak eta eskularruak. Gure egonaldia Albaola faktorian bukatu ginuen itsasontziak nola egiten diren ikasiz, ikusiz ere heldu den urtean Pasalatik Kanadako Ternura joanen den baleontziaren erreplika, San Juan izenekoa. Ateraldi horren helburuak euskaraz mintzatzea eta gure euskal kultura sakontzea ziren, agian berriz beste ateraldi bat egingen dugu beste manera batez gauzak ikasteko!

Andde, Ainara, Battitt, Esteban, Gexan, Leiana, Mikel eta Xalbat, Donostelko 5.eko elebidunak



Irisarriko ateraldia: euskal mitologiaren ezagutza

CM1eko ikasle elebidunek eta elebakarrek Irisarriko Ospitalea zentroan egin duten ateraldi pedagogiko batean parte hartu dute.

Zentroak euskal mitologiari buruzko erakusketa proposatzen du. Egun osoan zehar, haurrak Irisarriko herriko hainbat tokitan ibili dira ipuin desberdinen entzuteko eta pertsonaia batzuen ezagutzeko: Tartaro pertsonaia ospetsua, Mari jainkosa, Ligi zubiko laminak... Nahiz eta leiendak diren, haurrek galderak bazituzten, horrek era-



kusten du interesa ukan dutela. Arratsaldearekin, haur bakoitzak Tartaro irudikatzen zuen *pop-up* karta egin du. Holako ateraldi batek aberastasun handia du ikasle elebidunentzat.

Euskal mitologia ezagutuz, gure ondare kulturala bereganatzen dute, eta aldi berean, beren hizkuntza eta kultura aberasten dituzte.

Hazparmeko Santa Teresa eskola

Xitoak Bixintxo eskolan

Aurten, xitoak sortu zauzkigu Uzta-ritzeko Jondoni Bixintxo eskolan.

Egun batez, Santik 8 arroltze eman ditu andereñoari. Oiloak eta oilarak baditu bere etxean. Maxina batean ezarri ditugu 21 egunez.

Eta, 20. egunean, sorpresa pollita ukan dugu: bi xito sortu dira. Kus-kua hautsi dute haien moko ttipia-ekin.

21. egunean, beste 5 xito atera dira. Denak bizirik! Eta uste ginuen bukatua zela baina 22. egunean azkena etorri da: 8 arroltze, 8 xito.

Harrituak eta kontent ginen! Lehen egunetan gelan ziren. Santik etxe ttipi bat fabrikatu die. Gero, xitoak kanpoan ezarri ditugu lasto-arekin eta berogailu batekin. Emaiten diegu jatekoa eta edate-koa egunero. Behar da anitz oku-patu bainan mununuak dira. Bada dela 4 aste sortu direla. Anitz handitu dira: kukurusta badute, lumak pusatu dira eta aztaparrak ere.

Orain, gure familietan banatuko ditugu zeren-eta kanpoko etxea ttipi-egi da. Xitoek anitz mugitu behar dute eta airatu nahi dute ere. Biziki maitatu dugu xitoen ukaitea.

Ama eskolako ttipi eta artekoak



Ezberdintasunean denak elgarrekin

Senpereko Arretxea kolegioan plazer dugu ikasleeri proposatu proiektuetan elkarbizitza barnatzea. Aurten ere eraman ekintzetan sorkuntza bat egin da kolegioko 4Bko gelarekin, Kiribil antzerki eta arte elkarte eta heldu elbarritu aktore batzu elkartuz: BAKE UNE eman diogu izena, kolegioko ikasle eta ahultasun egoeran diren artistekin.

Bi astez kolegioan elkartu gira ikasle eta artistak prestakuntzaren egiteko, ikasleek aitzinetik gela sortu, landu, aberastu, apainketak eginik frantses, arte plastikoa eta euskarazko ikasgailuak.

Lan potoloa sortu da arras denbora gutiz, punduz pundu denak elgarrekin talleretan egunero ederki aitzinatzen zutela kreaio prozesua. Eta helburu bezala Senpereko Larreko gelan bi azalpen egitea:

arratsaldez ikasle lagun eta erakasle guzien aitzinean eta arratsean familiako eta publiko zabalarri idekia. Zer ikusgarri ederra, alaia, hunkigarria, irri, laguntza eta emozioz beteal

Biziki esperientzia ona izan da denentzat zinez; joan den astean berriz kolegioan egin dugun bilanak hori erakutsi du: elgarrekin zerbait sortzeko eta berriz ikusteko plazer, bestea hobeki ezagutzea bere ahulezia eta indarrekin. Denak harro eta pozik! Luzaz abikiko ditugun emozio eta oroitza pen ederrak...

Esker beroak proiektu huntan si-netsi eta parte hartu duten guzietari. Eta bereziki Kiribil elkarte lagunerari eta Senpereko Herriko Etxeko kultura zerbitzuko partaideerari!

Zueri esker kolegioko ideia azkar hune ere bizia hartu du eta bururaino ikusgarri ederra sortu dugu. Eskerrak deneri!

Senpereko Arretxea kolegioa



Zientziak lantzen

Aurten, ikasleek kanpoko eragile desberdinekin zientziak landu dituzte. Astrobasque elkartearekin, ama-eskolakoek eguna eta gauen zikloa ulertu dute aldiz handienek zeruaren mapa landu dute. Antoine Odisea Zientzieta-koak, ama eskolako dino-sauroak hobeki ezagutzeko aukera eman die. CP-CE1ek burbuila erraldoiak egin dituzte eta aza gorriaren kolo-rea aldatu dute, eta CM-ak

mikrobioak ikusteko mikroskopia erabiltzen hasi dira. Terre buissonnière elkarteak, ama eskolako ikasleei erleen mundua erakutsi die. CP eta CE1ek barazki eta fruitu ezberdinak ikusi dituzte urtaroen arabera, azkenik CE2 eta CM-k produktuen kalitatea eta jatorria aztertu dute. Gure zikloa bukatzeko, denak elkarrekin Donostiara Eureka zientzia museoa bisitatzea joan gira.

Ezpeletako Jondoni Eztebe eskola



Haziak Mintzo San Josepe eskolan

Zinema proiektua
San Josepeko ikasle handienek zinema lantzen dute eskolan. Haiei laguntzera etorri da Itziar Leemans zinegilea, film labur baten sortzeko. Ondotik, Maritxu Etcheto etorri da Euskal Kultur Erakundetik, eta harekin batera "Kerity" filma landu dute. Eta bistan dena, hori dena euskaraz!

Gerezien kontzertua
Aurten ere, haurrek parte hartuko dute gerezien kontzertuan, Oreka TX eta Thierry Biscaryekin. Erakaslea eta Sebastien Desgrans-en laguntzarekin, errepiketan xintxoki eta seriooki landu dituzte bizpahiru kantu, ahotsak, erritmoak eta hi-

tzak ongi menperatzeko!

Bizikleta
Martxoan, San Josepe ikastetxe-ko CM2ko ikasleek bizikleta ziklo batean parte hartu dute, CFA Outdoor-en formakuntzan den Alexandrak gidaturik. Sei saiotan zehar, bakoitzak bere bizikletarekin, "Savoir rouler" programako oinarritzko segurtasun arauak modu ludikoan ikasi dituzte, Atharrin ezarritako ibilbideei esker, benetako egoerak imitatuz. Zikloa amaitzeko, Itsasun barna ibili dira bizikletaz, Alexandra eta Anaiz irakaslearen laguntzarekin. Prest dira gure txirindulariak!

"Plisti-plasta"
Aurten Tipi eta Artekoen urteko proiektua emozioak ziren, eta hori



ulertu eta adierazteko modu paregabea deskubritu dute: dantza! "Plisti-plasta" ikusgarria mundu horren sarbidea izan da, eta ondoren, Arantxa Lannes-en eskutik, gorputz adierazpena, erritmoak

eta dantza pausuak landu dituzte, emozioak ardatz nagusia zirelarik. Bikain pasa dute, anitz ikasi dute eta dantzari trebeak bilakatu dira gure Pinpirin eta Urtxintxak!

Itsasuko San Josepe eskola

Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du, aurten 11. edizioa da. Aurten 69 testu errezibitu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Udan zehar, testu irabazleak Herrian agertuko dira.

Ze ametsa!

Behin bazen baserri ttipi batean, neska ttipi bat Maiatza izenekoa. Maiatzak hamar urte zituen, eskolara joaiten zen, ardi burubeltzak maite zituen eta "Haziak idazle" lehiaketan parte hartzea ere. Arrats batez, telebista so egiten zuen ardiak lokartzen ari zen. Bere amak erran zion: "Maiatza zoaz etzatera orain,

ateratzen zituen eta ardiak mendira bakarrik joaiten ziren. Hastapenean, ardiak pentze handi eta berde-berde batean ziren. Han ardiak alhan egoiten ziren eta geroxeago berriz abiatu ziren. Ongi jan eta, oihan handi batera joan ziren. Oihanaren erdian ibai ttipi bat bazen. Ibaian arrain handiak baziren, ardi bat botatzen zen eta beste ardiek segitzen zuten. Ibala pasatu eta, lurrezko bide bat segitzen zuten. Bide hortatik pasatuz, mendiko zerrandei batean gelditu ziren. Arratsean ardiak zerrandean etzan ziren. Biharamunean, tripa asetu eta berriz mendi kaskora



akitua zira".

Ohera heltzean segidan lokartu zen. Gauean, Maiatza ametsetan ari zen. Bere lehen ametsen bere gatua zen itzalean lo eta uste zuen xakur batek bere gatua jaten zuela. Direktuki iratzarri zen eta erran zuen: "Ah! Amets gaixtoa zen". Jaiki zen komunera joiteko eta berriz lokartu zen. Bere bigarren ametsen, artzain bat bazen. Artzainak bere ardiak arditeitik

buruz abiatu ziren. Arratsaldean, ardiak mendi kaskora arribatuak ziren. Uda guzian mendi kaskoan egon ziren eta larrazkenean ardiak etxaldera berriz jin ziren. Goizean amak bere alaba iratzarri zuen eta Maiatzak erran zuen: "Waooh ze ametsa!"

Mattin Etcheverry Donostei eskola, Baigorri 3. zikloko bigarrena - bakarka